



INAUTEAK

ETXALAR, BERA, LESAKA, DONEZTEBE, ELIZONDO, URDAZUBI ETA GOIZUETA

2026

ttipi-ttapa | 895 zk. | 2026-02-12



ETXALARKO INAUTEAK



UTZITAKOIA

Otsailak 12, ortzeguna

Goizean gaztetxoak etxex etxe ibiliko dira eskean *urtzain gizen* kantatuz. **14:20ean** eskolako ikasleen desfilea eta ikuskizunak, eskolatik hasi eta plazaraino. **Ondotik**, haurrentzako merienda Guraso Elkartearen eskutik.

Otsailak 15, igandea

Zaldun inaute eguna. **Eguerdian** herritarrek kinto bazkariak egingen dituzte.

Otsailak 16, astelehena

08:00etan gazteak La Basque jate-txean elkartu eta elkarrekin gosalduko dute. **Ondotik**, musikariek lagundutza baserrietara abiatuko dira etxex etxe eskea egiteko.

Otsailak 17, asteartea

12:00etan karrozen eta moztorroen desfilea. Pintxoak eta edariak banatuko dira ibilbidean. **Ondotik**, gazteek bazkaria egingen dute La Basque jatetxean.

Ongi pasa inauteak!

USOA kooperatiba

🛒 🚰 🍷 🛠️ 🐾

☎ 948 635 214 📞 605 631 244 ETXALAR

Herriko Ostalua
ETXALAR

OSTATU - JATETXEA
Etxeko sukaldaritza kalitatezko produktua

T. 948 39 79 59 - Andutzeta, 15 - ETXALAR

HERRIKO OKINDEGIA

Euskal Herriko gari mota zaharrak gure erroten ehotuak

- ✓ Espelta Handia
- ✓ Espelta Txikia
- ✓ Florencio Aurora
- ✓ ARAGON 08
- ✓ Lakaingo bizarduna

06:00 - 13:00
EGUNERO IREKIA
Tlf. 627 03 39 75

erran.
eus
Mendialdeko Albisteak

ONGI PASA INAUTEAKI

ELUTSA
OSTATUA

PINTXOAK
•
BOKATAK
•
RAZIOAK

Andutzeta, 15 - ETXALAR • T. 948 635 191

ETXALARKO UDALAK

inaute onak opa dizkizue etxalartar eta bisitari guztiei



KAFETEGIA OSTATUA
Ongi pasa inauteak!
 Bokatak, Pintxoak, Razioak, ...
 Eztegarra pasealekua, 30 - Bera - 688 64 16 79



AINHOA ALTZUGUREN MITXELENA
 ABOKATUA
 Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
 BERA | M. 630 972 189 | ainhooaltzuguren@gmail.com



ongi pasa inauteriak!
3. Estankoa
 San Esteban, 11
 BERA - T. 948 63 16 37



ELEKTRIZITATE LANAK
 Erreformak, etxe berriak
 Lantegietarako mantentze-lanak
 948 631 217 | 630 136 863
 Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
 jaurenabera@gmail.com
ONGI PASA INAUTEAK!



MUS TXAPELKETA
 Urtarrilaren 9tik maiatzaren 29ra
 ortziraletan 22:00etan
 *apirilaren 3an izan ezik



ansoneta zar VENTA GORRA SNAZZIDOR Goieko

BERAKO INAUTEAK



ARANTZA AGIRRE

Otsailak 11, asteazkena

18:00etan Isidoro Fagoaga musika eskolako ikasleen inauteetako kontzertua Kultur Etxean. **Aitzinetik** karrikabuelta egingen dute parte hartzaileek.

Otsailak 12, ortzeguna

Goizean haurrak zingar arroltze eskean aterako dira herrian. **15:30etik aitzinera** ikastetxe bakoitzak bere patioan ospatuko du inautea. Segurtasun arrazoiengatik ezin izanen da desfilerik egin aurtan. **Ondotik** merienda izanen dute ikastetxean.

Otsailak 15, igandea

10:00etan hasita Inudeen eta Artzainen desfilea Eztegarra pilotalekutik hasita **14:00etan** bazkaria parte hartzaileentzat Zubiondon. **18:00etan** Inudeen eta Artzainen desfilea Euskaldunatik Errekalde pareraino.

Otsailak 16, astelehena

Goizean zingar arroltze eskea base-rrietan. **Egun osoan** moztorroak herrian barna; karrozarik ezin izanen da atera. **18:00etan** hasita Andoni Ollokiegiren kontzertua. Sarrera kiroldegitik izanen da.



BERAKO UDALA

INAUTERIETAN,
 ARDURATIK ETA ERRESPECTUTIK
 DISFRUTATU ETA GOZATU

«Musikak gaztetatik inauteen parte izateko aukera eman dit»

JOSETXO SAN JUAN BERAKO MUSIKARIA



UTZITAKOA

Herri musikaria eta musikazalea da Bera. Eta musikak presentzia izaten du baita inauteetan ere. Kaldereroetan dela, edo Inude eta Artzainetan dela, mozorroekin batera musika izaten da karrikako protagonista. Bada, inauteetan musika jotzen ateratzen denetako bat da Josetxo San Juan. Haurra zela hartu zuen saxofoia lehendabizikoz soinean, eta geroztik, bestarako aitzakia ederra bihurtua zaio instrumentua.

Hautzaroko inauteak

Tikitatik bizi ditu inauteak Josetxok, nahiz eta haurra zeneko oroitzapen argirik ez duen. «Zingar-arroltze eskea egiten genuen, baina aunitzez gehiago ez dut oroitzen», horrela oroitu ditu umezaroko inauteak. Haurra zenetik Berako inauteak aldatu direla oroitzen da, «batez ere orduan ez zelako gaur egun bezala Inudeen eta Artzainen desfilerik egiten ortzegunean. Baserriz baseri zingar-arroltze eskean jendea gehiago ibiltzen zen».

Orain baino gazteagoak zirenean, astelehenean mozorro lehiaketa egiten zen, «eta bikingoz mozorrotuta atera ginen urtean irabazi genuela oroitzen naiz».

Nork bere herriko inauteak izaten ditu gustukoen, eta Josetxok Berakoak bereziak zergatik diren esplikatu du: «Alde batetik, Inudeetan eta Artzainetan mutilak inudez eta neskak artzainez ateratzen dira». Bigarren arrazoia eman du: «Astelehenean, geroz eta karroza gehiago egiten dira, eta hori ere polita da, nahiz eta aurtun Altzateko lanengatik ezin izan den». Horixe izan den dute diferente aurtengok, Altzateko lanengatik ezin izan den dela karrozarik plazaratu.

Inauteak eta musika

Inautezaleztat du bere burua Josetxok, eta uste du musikak ireki diola inautea barrenetik bizitzeko bidea: «Musikak gazte gaztetatik Kaldereroetan eta Inudeetan eta Artzainetan parte hartzeko aukera eman dit, eta barrenetik bizitzea tokatu zait». Gaur egun ere, musika jotzen segitzen du Berako Musika Bandan, eta hala,

«MUSIKARI ESKER INAUTEAK BARRENETIK BIZI DITUT»



MARITX
Ingeniaritza elektrikoa | Industria buletina
Proiektu elektrikoak | Instalazio elektrikoak
☎ 636 617 450 | Legia, 23 BERA

MENDIKO LANAK ETA LOREZAINZA

- ARBOLAK MOZKETA ETA KIMAKETA ALTUERAN
- ESKUZ ETA MAKINAZ EGINDAKO LURSAILEN GARBIKETAK
- HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA ETA KUDEAKETA
- ARBOLAK IPURDITIK ATERTATZA
- GUNE BERDEEN SORRERA ETA LOREZAINZA LANAK
- ITXITURAK PIKETEEKIN

ESKATU ZURE AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

☎ 603 581 326 | BERA | Ongi pasa inauteak!
✉ juanarboricultura@gmail.com | @arboriculturajuanele

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

ARROPA ETA OSAGARRIEN GUNE BERRIA

Kantlonberri, 1, BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK
✉ javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus
☎ 699 122 815

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Etxebizitza berriak | Zaharberritzeak Erreformak
Konponketak | Teilatutak | Harri eta hormigoi lanak
Mota guztietako igeltseritza lanak

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 630 967 w. www.zalain.info

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI
MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER
KONBINATUAK

zubiondojatetxea.com | T. 948 625 472 | Alasta karrika, BERA

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

HERMI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa inauteriak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera

Ongi pasa inauteriak!

DESIN BERA

DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK ·
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK · HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

LIXOIA

OSTATU - JATETXEA
Itzea, 2 - 31780 BERA
948 631 271
Ongi pasa inauteriak!

EDARIK

Ongi pasa inauteriak!

MANUEL TABERNA S.L.

9 Bidasoa, 76 - 31780 BERA
948 63 10 27 670 598 560
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus



UTZITAKOIA

musikarekin eta saxofoiarekin lotuta bizitzen ditu inauteak ere. Ez inauteak bakarrik, saxofoia bertzelako besta egiteko ere aprobetxatu izan baitu aunitzetan. «Besta aunitz egin-dakoa naiz ni, eta horietako aunitz saxofoia jotzeko aitzakiarekin. Txaranga genuen garaian egiten genituen bestak... a zer garaiak!».

Igandea gustukoan

Berako inauteetako egun gustukoe-na inauteetako igandea da Josetxo-rentzat: Inudeen eta Artzainen desfilea. Nola ez, saxofoia jotzen ateratzen da eta egun osorako plana egiten dute musikaren arrimuan: «Eguna gosaltzeko elkartuz hasten dugu, batzuk lo eginak, eta bertze batzuk oraindik erretiratu gabe etortzen dira, eta giro polita sortzen da goizean goizetik».

Ohikoa izaten baita hori ere Beran, bezperan Lesakan besta egin, eta igandean gaupasa eginda joatea dantzara, konpartsara edo musika jotzera. Hori, behin baino gehiagotan egin izan du Josetxok ere, «gaztetan». Orain, ordea, «nahiago izaten dut deskantsatu eta igandea ongi aprobetxatu».

Goizean bakarrik ez, «giro ederra egun denean izaten dugu bai desfilean eta baita bukatu ondotik ere, txaranga gisa kanta batzuk jotzean». Musikarientzat berezia izaten da igandean musika jotzea herrikoia izaten baita txarangan parte hartzea. «Musika tresna bat jotzen duen edozeinek parte hartzen ahal duenez, urtean zehar harremanik ez duzun jendearekin elkartzen gara, eta hori aunitz gustatzen zait».

Astelehenerako mozorroa

Igandean deskantsurako tarte handirik gabe, astelehenean berriz ere mozorroa soinean karrikan izaten da. Horretarako, eguberrien bueltan hasten dira mozorroa aukeratzen kuadrillan: «Aukera batzuk jarri eta horien artean bozketa egiten dugu». Behin mozorroa aukeratzean, ba-koitzak bere aldetik prestatzen du arropa. Mozorroa etxean prestatzen duten horietakoa da: «Etxean inauterizalea den artista bat dugu, eta mozorroak prestatzen bera aritzen da, gehienez etxeko gauzak erabiltziz».

Gainerakoan, kuadrillan mozorroaz aparte bertze zerbait prestatu behar badute, badituzte horretan «artistak» direnak ere. «Beraiek pentsatu eta gu laguntzen aritzen gara. Inauteri aitzineko prestaketa egun horiek ere politak izaten dira».

Hainbertze urtetan mozorro parrasta eginak dituzte: motorzalez eta Isabel II erregina eta bere bandaz mozorrotu zirenekoa aipatu ditu «baina oroitzen hoberena dudana ijitoz atera ginenekoa da, musika zuzenean joz, ahuntzarekin eta guzti ibili ginen!».

Aitzineko urteetako tradizioari segiz, seguru aurtengo inauteetako ere ziur ideia originalen bat prestatu dutela!

**«BEREZIKI OROITZEN
NAIZ IJITZ, AHUNTZ
ETA GUZTI, ATERA
GINENKO EGUNAZ»**

LESAKAKO INAUTEAK



A. AROTZENA

Otsailak 12, Ortzegun Gizen
Goizean haurrak Arraultze-arraultze ibiliko dira.

Otsailak 15, igandea

17:00etan zakuzahar ttikien kalejira herriko pilotalekutik abiatuta Lesaka Trikitixa Taldeak lagunduta.
18:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean ITZAL erromeria Taldearekin.
19:00etan Zakuzaharrak herriko pilotalekutik abiatuko dira Lesakako Musika Bandak lagunduta. Goitarrak: goizean Auzoberri, Endara, Zala, Katazpegi eta Nabazen barna baserri ibiliko dira eskean eta dantzan eta ilunabarrean herrian.

Otsailak 16, astelehena

Eguerdia aldean mozorroak eta karrizak ibiliko dira herrian barna. 18:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean Imanol Intxausti eta Iñigo Larrañagarekin. Fraindarrak, goizean Otsango eta Frain auzoetan barna baserri ibiliko dira eskean. Eguerdia aldean herrian barna egingen dute eskea.

Otsailak 17, asteartea

Fraindarrak, goizean Izotzaldea auzoan barna baserri ibiliko dira eskean. Arratsaldean, berri, herrian barna egingen diruzte harat-honatak.



**IZARRA
OKINDEGIA**

ongi pasa inauteriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855



KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
eta gero ikaina
PRESO TA (HESLARIAK ETXERA)

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA



Txotx denboraldia irekia!

Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA)
TEL 948 63 72 12

Antoiu

OSTATUA

07:00etatik
aitzinera irekia.

**PINTXOAK
BOKATAK
PLATERAK**

*Ongi pasa
Inauteriak!*

Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 631 02 79 50

L'IDERA

**INGURUNE BERRIA
ZURE IRRIARENTZAT**

Ortodontzia eta odontopediatria,
odontologia orokorra, endodontzia,
implanteak, errehabilitazio protesikoa,
hortzetako estetika, eta abar.

Al-Og.: 08:00-13:00 | 15:00-20:00 Or.: 08:00-18:00
Larunbatetan irekia: 08:00-13:00

Iturrizubiako pl. 9-10 LESAKA | T 722 662 478
lidera@hartzklmika.es | @liderahartzklmika



**XAGU
LIBURUDENDA**

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA



- PAKETAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGIUNKARIAK, ALDIZKARIAK



IÑAKI JANARIDENDA
ONGI PASA INAUTERIAK



Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

PITTIN! ONGI PASA INAUTEAK!



T. 948 627 583
Arretxea 20, Behea
LESAKA

haurrentzako arropa denda

JOISA



AROTEGIA,
MAKINA, ERREMINTA,
ERAIKUNTZA
MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, ateak,
hesiak, forja artistikoa, ...

M. 646 774 117

Otsango Ind. • 31770 LESAKA
talleresjoisa@hotmail.com



KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE




*ongi pasa
inauteriak*

**Plaza Zaharra • 948 63 72 87
LESAKA**

«Inauteetako egun bakoitzak badu bere berezitasuna»

FRED RAMOS LASAGA KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA



AITOR AROTZENA

Lehiaketara aurkeztutako hamaika lanen artean boto gehien hartu ondok, Fred Ramos Lasagaren 'Beguirada' kartelak iragarriko ditu Lesakako inauteriak. Iaz ere bere lana suertatu zen irabazle eta sanferminetako kartel lehiaketa irabazi du azken hiru urteetan. 2023an Berako bestetakoa ere irabazi zuen. Beti Gazteren argazki rallyetan ere sariak irabaziak ditu 35 urteko lesakarrak. «Azken aldietan suertea izan dut, jendea gustatzen zaio, jendeak parte hartu eta bozkatzan du eta sariak lortu ditut. Politak da eta hagitik kontent nago». Lesakako eta Berako lehiaketetara bai, baina ez du horietatik kanpo bertzetan parte hartzeko ohiturarik. Argazkilari eta bideo kamerarekin ere ibiltzen da Fred Ramos, «hori da nire hobbia», eta irudi horiek oinarri hartuta egiten ditu karteletako edo programen azaletako diseinuak. «Oinarria hori da, argazkia –dio Ramosek– eta hori hartu eta saiatzan naiz argazki horretako detaileren bat nabarmentzen, ordenagailua hartu eta Photoshop erabiliz efektuak ematen, edo nolabait lantzen». Aurtengo kartel irabazlearen kasuan, 'Beguirada' izenburua paratu dio, beharbada zakuzaharrei ikusten zaien gorputzeko atal ia bakarra begiak direlako? «Beti saiatzan gara

zakuzahararen barrenean nor dagoen asmatzen eta horretarako begiak bakarrik ditugu, zakuzahar bakoitzak bere begirada du... Lehiaketa irabazi duen karteletako argazkian zakuzahar gehiago baziren, baina bat zentratu, alde batera begira zegoen eta hortik dator izenburua» erantzun digu. Berak irabazi dituen bi lehiaketetan hala izan da, baina ez du uste Lesakako inauterietako kartelean derri-gorrezkoa denik zakuzaharra izatea protagonista... «Aurtun hiru kartel aurkeztu ditut eta irabazleak zakuzaharra da, jendea hau gustatu zaio gehien bat, Lesakako inauteria zakuzahararekin lotzen delako, baina bertze batean Fraindarrak taldeko baten bizkarra ageri zen, 'Painulua' izenburuarekin eta hirugarrenean, zakuzahararekin batera jostuna ere ageri zen, betetzeko eta josteko prozesuan garrantzitsuak direlako».

Ezpata dantzari eta zakuzahar

Sanferminetako karteletan ezpata dantzaria, inauterietakoan zakuzaharra... Fred Ramos biak izana da, ezpata dantzari eta zakuzahar. Besta eta pertsonaia horiek barrenetik ezagutzeak laguntzen omen du kartela egiterako garaian: «Nikuste baietz, laguntzen duela... Badakizu begirada non jarri, detaileak non bilatu, abantaila tiki bat da». Eta zeinetan gozatu duen gehiago, ezpata dantzari edo zakuzahar, hori galdetuta, «bakoitza diferentea da» erantzun digu. «Zakuzahar ez duzu entsaiatu beharrik ere, zure zakuak, trapuak eta painulua hartu, makila prestatu eta egunean berean atera eta disfrutatu. Zakuzahar hainbat urtez atera nintzen (ondoko orrialdeko argazkian, Frand anaia bikia zenarekin ageri da) eta ederki pasatu nuen. Ezpata dantzari ateratzeko lan gehiago da, aitzinetik entseguak egin behar dira, batzutan hiru urte pasatu behar dituzu entsaiatzen ateratzeko, baina behin ateratzen zarela, hor ere gustura ibiltzen zara».




UTZITAKOIA

Asteleheneko mozorroarekin kontuak

Zakuzahar dagoeneko ez da ateratzen, baina inauteak bere modura bizitzen segitzen du: «adinak ez du barkatzen eta familia izatearekin bertze modu batera bizitzen duzu, besta guttiago egiten duzu, guttiago atera. Halere, semeari zakuzaharrak aunitz gustatzen zaizkio eta aitzakia horrekin hurbiltzen gara ikustera, argazkiak atera... Bi urte ditu eta mairuz atera da, baina iruditzen zait agudo zakuzahar ere aterako dela, gogoekin ikusten dut». Gainerakoan, kuadrillarekin larunbat eguerdian ateratzen da Fred Ramos «bakoitza bere mozorroarekin» eta astelehenean ere elkarrekin gelditu izan dira, gai bera aukeratu eta horren inguruan mozorratzeko, «baina ez dugu inoiz karroza handirik egin. Urteak pasa ahala gero eta guttiago elkartzen gara, lana dela, haurrak... aurten, ustez, ez gara aterako. Bertzeak ikusiko ditugu». Kuadrillarekin atera den horien artean gogoan du txina-

tarraz atera zirenekoa, «justu Realak txinatar bat fitxatu zuen, Lee Chun Soo, eta aitzakia horrekin, mozorro konbinatua egin genuen. Gustura ibili ginen. Urtero zerbait ezberdina egiten saiatzen gara. Egia errateko gure ideiak ez dira sobera onak izaten, baina ederki pasatzen dugu. Joan den urtean peregrinoz atera ginen... Tourreko urtea ere ona izan zen, kuadrillako bi txirindulariz atera ziren eta, Linddurrenbordan bazkaltzen dugunez, bertaraino bizikleta gainean joan ziren».

Inauteetan gehien gustatzen zaiona egun bakoitzak dituen berezitasunak dira: larunbatean bazkaritik hasi eta afariarekin lotu eta desmadratzen da kontua, goizeko ordu tikiak artea... igandean zakuzaharrak dituzu, ateratzen bazara gustura eta ikusteko ere polita eta astelehenean berriz ere mozorroa, karroza... aitzineko bi egunen nekea ere nabaritzen dira. Denak diferenteak, baina denetan gustura!».



Bixen
Bixen, estatu


ONGI PASA INAUTEAK!
Ameztiak karrika | **DONEZTEBE**
T. 848 680 806

12:00

OSTATUA

LARUNBAT GAUETAN SEKULAKO GIROA!!!
ONGI PASA INAUTEAK!
Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE

Belarra jatetxea **ONGI PASA INAUTEAK!**



Ameztiak zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

BIDASOA
GURPILAK · GASOLINERAK
100% BIKOTAK

609 446 693
948 625 663
bidaso@neumaticosbidaso.es

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi kalea 6 - LESAKA


Ongi pasa inauteak!

EDERKI tailerra

 **CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA**

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
ongi pasa inauteriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

HARTU TTIPI TXARTELA


Aprobetxatu aukera!
eta erabili
pegatina hau ikusten
duzun denda eta
zerbitzuetan



ttipi-ttapa

DONEZTEBEKO INAUTEAK

Otsailak 12, ortzeguna

20:00etan poteoa inauteak haste-ko. **22:00etan** afaria herriko ostatuan Gazte Burrunbak antolatuta.

Otsailak 13, ortziralea

08:30ean Gazte Burrunbak antolatuta gazteak eskean aterako dira baserriz baserri. Baserrietatik bueltan, herriko hainbat lekutan ere ariko dira eskean. **13:00etan** Zazpigurutzen, **14:00etan** Elizagibelan, **15:00etan** Karrika Nagusian, **16:00etan** Intzakardin eta **17:00etan**

Mourgues karrikan. **Ondotik**, ostatuetan barna karrikabuelta egingen dute karropoteoarekin. **11:00etan** San Miguel eskolako ikasleen karrikabuelta herrian barna. **17:00etan** haurrentzako jokoak eta kareetak margotuko dituzte. **18:00etan** txokolata jatea. **18:30ean** Just Dance dantzatzeko jokoak.

Otsailak 14, larunbata

16:30ean desfileko parte hartzaileak Aparanen elkartuko dira desfilera-ko prestatzeko. **17:00etarako** hasiko da desfilea.



UTZITAKOA


ONGI PASA INAUTEAK!

Sampi Aragón S.L.

Mekanika · Elektrizitatea · Txapa · Pintura



T. 948 450 354 | DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com

«Geroz eta gehiago gustatzen zaizkit inauteak»

ANGIE OTXANDORENA DONEZTEBEKO INAUTEZALEA



UTZITAKOA

Doneztebeko inauteriak ez ditu haurra zenetik bizi Angie Otxandorenak. Erroak Eratsunen baditu ere, sortzez Kalifoniarra da Angie eta 22 urte zituela etorri zen Malerrekara bizitzera. Aunitzetan izana zen Malerrekaren lehenago, baina sekula ere ez inauterietan. «Doneztebeko inauteren lehen oroitzapena 1990. urtekoa edo izanen da. Oroitzen naiz herriko gazteek ezkontza bat interpretatu zutela, eta jende pila bat inplikatu zela, gauza izugarri polita iruditu zitzaidan».

Doneztebera bizitzera joan eta handik urte batzuetara auzoko bertze emakume batzuekin atera zen lehen-dabizikoz desfilean, eta geroztik «urtero ateratzen saiatzen naiz» kontatu du. Pasioz mintzo da inauteez, eta pasioz bizi ditu aitzineko prestaketa egunak ere.

2013. urtetik Menditxuri deitzen dioten karrozarekin ateratzen da Angie larunbateko desfilean, eta kua-drilla ederra osatzen dute. «Koreografiak prestatzen ditugu, eta 30n bat lagun edo ibiltzen gara». Ikusmina pizten dute beren moztorroek eta karrozek: «Jendea gure zain-zain egoten da, nik uste grazia edo egiten diegulako. Musika alaia paratzen saiatzen gara, hori inportantea baita. Karroza beti ongi egina egoten da baina inportanteena guk sortzen dugun giroa da».

Larunbata bai, baina ortziralean ere inaute giroan murgilduta ibiltzen da, izan ere hainbat auzotarrekin batera harrera egiten die gazteei. «Duela urte batzuk, baserriak gutxitzen ari zirela eta, gazte batzuk aipatu zuten herrian ere harrera egiten ahal geniela eta horrela hasi ginen». Pandemia aitzinetik hasi ziren horretan Elizagibela auzoan, eta gaur egun 30 lagun baino gehiago biltzen dira gazteen harrera prestatzeko. Pozarren bizi du gazteekin elkartzeko Angie. «Gazteek inauteez disfrutatzen dute, eta gu beraien arrimuan kontent ibiltzen gara» kontatu du. Gazteek harrera «izugarri» eskertzen dutela dio eta herritarrak elkartzeko manera polita dela: «Inportantea da lanaz harago herritarrek elkartu eta bista giroan egotea».

Mozorrorik gustukoenak

Orain arteko moztorrozo denek ekartzen dizkiote oroitzapen onak Angie-ri, baina barrenean gordea du Boney M taldeaz moztorroto zirenekoa: «Izugarri ongi pasatu genuen, eta jende gaztea ere gurekin igo zen dantzatzera». Gehiago ere bai: «Gazteak beraien karrozan disfrutatzen ikusten dituzunean, eta gurekin dantzatzera etorri nahi dutela ikustea polita da».

Inauteak barren barrenetik bizi ditu, eta luzaroan segitu nahiko luke horrela, nahiz eta uztea pentsatu izan duen tarteka: «Batzuetan pentsatzen dut 60 urteren bueltara ailegatuta badela erretiratzeko ordua, baina geroz eta gehiago gustatzen zaizkit inauteak eta uste dut ongi nagoen artean segituko dudala parte hartzen». Hori aldarrikatu nahi du, inauteak eta bestak ez direla gazteentzat bakarrik: «Geroz eta jende heldu gehiagok parte hartzen du desfilean eta polita da hori lortu izana».

Aurtengo moztorroa ere prest dute dagoeneko, eta gogoz dira dantza eta barre artean inaute giroan murgiltzeko.

Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

**ongi pasa
inauteak!**

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE

BAR TITI
DONEZTEBE

**ONGI PASA
IÑAUTIAK!**

BAR TITI DONEZTEBE

Mendaur Motor

Kotxe salmenta | Marka guztiak

MENDAU MOTOR
T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPRVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Leitzako bidea · DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 333
www.mendaurmotor.com

Doneztebe/Santesteban

D S

Udala
Zuretzat lanean

**INAUTEAK, IÑAUTERIAK,
ARATUSTEAK, INOTEAK...**
TXUKUNTASUNEZ ETA ERRESPETUZ
ELEGANTE PASATZEA OPA DIZUE
DONEZTEBEKO UDALAK
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI



ELIZONDOKO INAUTEAK



ONDIKOL

Otsailak 12, ortzeguna

10:00etan haurrek kalejira eginen dute herrian barna, eta **11:00etan** jokoak. **13:00etan** bazkaria izanen dute eta **15:00etan** oilar dantza hasiko da frontoian. **16:30ean** merienda eginen dute eta **17:00etan** dantzaldia Hauspolarien eskutik frontoian.

Otsailak 13, ortziralea

09:00etan gazteek puxka biltzea abiatuko dute eta **11:00etan** dantzaldia eta gosaria eginen dituzte plazan Elizondoko eskolarekin. **16:30ean** haurren desfilea abiatuko da eta **17:30ean** txokolate hartzea eta Jantziloren erreketak izanen dute plazan. **18:00etan** J&J DJ izanen da plazan eta **20:00etan** abiatuko da txarangapoteoa.

Otsailak 14, larunbata

11:30ean hasiko da orgen desfilea Santiago karrikan barna, eta plazan akituko dute. **18:30ean**, berriz, J&J DJ izanen da plazan eta gauean segida izanen du bestak.



TXOKOTO TABERNA



UTZITAKOA

«Aste luzez egindako lanaren fruitua biltzen dugu inauteetan»

MIREN GONZALEZ ELIZONDOKO GAZTEA



UTZITAKOA

Elizondon inauteriak ospatuko dituzte ortzirale eta larunbatean eta herria mugiturik sumatzen da egunotan: lagun kuadrillak desfileko orgei azken ukituak ematen, herri-tarrak moztaroen azken apainduak prestatzen eta ostatuak ere hortxe dabilta; paretak apaingarri koloretuez estaltzen, lan egun luzetarako prest. Hala, «inauteriak betidanik gustuko» izan dituen Miren Gonzalez 24 urteko elizondoarrarekin mintzatu da Ttipi-Ttapa. Bide batez, herriar gisa karriketan barna ez ezik, etxeko ostatuan—Casinon—lanean ere pasatzen baititu inauteriak Gonzalezek: «Ortziralean txaranga-poteoan ibiltzen naiz, eta hurrengo egunean egun guzia ostatuan lanean aritzen naiz, bestondoa pasatzen».

Gonzalezek adierazi duenez, «etxe gisa sentitzen dut Elizondo, eroso sentitzen naiz hemen» eta herriaren berezitasunaz mintzo, «herri xumea izateak egiten du berezia Elizondoko herria» bere ustetan. Halabeharrez, «maite duena ongi zaintzen duen horietakoa» ere badela argi utzi du eta hitzak ekintzekin berrestearen aldekoa dela bistakoa da, herriko inauterien bizitasuna mantentze aldera hor ibiltzen baita ostatua goi-

tik beheiti apaintzen eta itxuraldatzen: «Lan ikaragarria egiten dugu, lehen-bizi ideia pentsatu eta ondotik ideia zerbitzariekin bateratzeko moduak bilatu; normalki, makillajea hartzen dugu oinarri, ostatuko zerbitzari ohiak, Miren Izeta makillatzaileak, makillatzen baikaitu egun horretan. Ondotik, ideiak denen artean partekatzen ditugu eta materiala begiratzeko hasten gara ostatua apaintzeko eta bakoitzak bere jantzia prestatzeko».

Hori horrela, Casinon inauteriak betidanik «modu berezi batean» bizi izan dituztela esplikatu du, «ez ditugulako asteburu soil batera mugatzen». Ostatua inautetarako prestatze horretan, gibeletik lana izan badela ziurtatu du Gonzalezek eta oroitzen hasita baden lanaz betidanik jabetu izan dela erran du: «Gibelera begira, ostatuari dagokionez betidanik ezagutu izan dut inauterien gibelean dagoen lana. Tikitan amarekin hurbiltzen nintzen aitaren makillajea eta ostatua nola apaindu izanen zuten ikustera».

Gisa berean, lana bai, baina herriarren partetik biltzen dituzten piropekin eta prestaketa lanetan ostatuko artean sortzen den «giro onarekin» kontent agertu da: «Jendeak gure moztaroen, ostatuko apaingarriekiko zein makillajeari buruz erakusten duen erantzun positiboa aunitz eskertzen dugu».

Azkenik, aurtengo inauteriei begira, ortziralean «txaranga-poteoaz disfrutatzea» eta biharamunean «lan giroan gozatu eta eguna hain luzea ez egitea ere» espero duela iragarri du Gonzalezek. Bidenabar, etorkizun urrunago batera begiratzeko eskatu eta «sobera amesten ez duenarikoa» dela aitortu du, «momentua bizi, egunerokotasunaz gozatu eta datorrena esku zabalik hartu» nahiago duela aitortuz.

Bar Saioa Ostatua

HANBURGESAK
BOKATAK
PLATER KONBINATUAK
ENTSALADAK
PINTXOAK

Ongi pasa inauteak!

Santiago 96 Behea | ELIZONDO

948 58 01 94

Goizalde ostatua

Ongi pasa inauteriak!!

Pintxoak
Eguneko menua
Karta
Plater konbinatuak
Ogitarteak
Entsaladak
Hanburesak
Errazioak

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

RotuBaztan

Errotulazioa eta diseinua

660 721 762

rotubaztan@gmail.com

Pol. Ind. Zaldubia Urutia (No)

- Autoak errotulaztea
- Kristalak tindatzea
- Lokalak errotulaztea
- Olana inprimatua
- Kanpoko seinaleak
- Bisita txartelak, albaranak, etb.
- Eranskailuak eta kartelak pertsonalizatzea
- Arropa estanzioia
- 3Dko kartel argidunak
- Publizitate lanak
- Inprimatze digitala

hiru

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin zure eskaera

... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA FERIARI

Kaxulak,
plater konbinatuak,
bokatak, pizzak,
hanburesak,
entsaladak, frituak...

Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

VENTA
ZUBIONDOA
Ostatua, supermerkatua, denda

Landibar, 7 Urdazubi • Tel. 948 599 041
www.zubiondoa.com • zubiondoasa@gmail.com

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com
www.santiagovillares.com

URDAZUBIKO UDALA



**Urdazubiko Udalak
inaute zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei!**



URDAZUBIKO INAUTEAK



UTZITAKOA

Otsailak 15, igandea

09:00etan herriko gazteak Karretero ostatuan elkartuko dira kafea hartzeko. **Ondotik** eskean abiatuko dira etxez etxe musikaz alaiturik. **09:30ean** herriko gaztetxoek elkartuko dira eta etxez etxe ibiliko dira musikaz alaiturik. **21:30ean** pintxoak eta musika izanen dira denentzat Karretero ostatuan.

Otsailak 16, astelehena

09:00etan herriko gazteak Karretero ostatuan elkartuko dira eta eskean abiatuko dira etxez etxe musikaz alaiturik. **09:30ean** herriko gaztetxoek elkartuko dira eta etxez etxe ibiliko dira musikaz alaiturik. **21:30ean** pintxoak eta musika izanen dira denentzat Karretero ostatuan.

Otsailak 17, asteartea

10:00etan herriko gazteak Dantxarinean elkartuko dira eta eskean abiatuko dira bentaz benta musikaz alaiturik. Goizean herriko txikiak itzulua egingen dute herrian barna. **15:00etan** pintxoak eta musika izanen dira Karretero ostatuan. **18:00etan** haurrendak txokolate hartzea Karretero ostatuan.



UTZITAKOA



UTZITAKOA

«Egun osoa irriz, kantuan eta dantzan pasatzen dugu»

ANGEL AROZARENA URDAZUBIKO GAZTEA



UTZITAKOA

Mozorro giroa dario gure eskualdean data hauetan eta zenbait herri ihauteriak agurtu dituzten heinean, berte zenbait gogotsu daude beraiei noiz tokatuko zain. Bide batez, urdazubiarrek igandean hasiko dituzte ihauteriak eta igandeari begira buru-belarri dabilta egunotan: urterokoak diren jantzi bereziei errautsa kentzen, mozorro berrien azken apainduak moldatzen eta heldu den egunetan kantatuko dituzten urteroko kantu zaharrak oroitzen. Hala, mozorroak jauntzi eta etxez etxe ibiltzeko «irrikitan» dagoen Angel Arozarena 29 urteko urdazubiarrarekin izan gara.

Pintzelkada solteez osotasunean

Urdazubiko inauteriak hitzak aditu eta segituan burura «gauza aunitz» datozkiola erran du Arozarenak, inauterietako hiru egunak pintzelkada solteekin irudikatuko balitu bezala: «galtza zuriak eta blusa, baserritar jantzia, aulki dantza, arnoarekin egiten dugun eglu-eglua, Beñat Mitxelena akordeoilaria, euskal kantak, herritar konketu batzuk, jateko ugari eta anis txupittoa, bertzeak bertze». Iragarri duenez, «herria anitz maite dut» eta «herri giroan egotea gustatzen zait»; oro har, inauterien gisako data markatuetan herritarren

arteko hartu-emana falta izaten ez dela ere gaineratu du: «Urtean zehar herria nahiko lasai dago, baina data bereziak ailegatzerakoan herritarrak erraz elkartzen gara eta giro ederra izaten dugu».

Are gehiago, egutegian kolorez seinalaturiko daten artean, kolore deigarriena inauteriek hartu ohi dutela adierazi du Arozarenak, «urteko besta berezienak» direla iritzita: «Aitzineko egunetan urduri egoten naiz eta egunak ailegatzean aunitz disfrutatzen ditut. Urte guzian elkartzen ez garenekin elkartu eta denbora guztian irriz pasatzen dugu arno, kantu eta dantza artean».

Bi eguneha herrian eta hirugarrena bentetan

Aipatu bezala, igandean hasiko dituzte inauteriak Urdazubin; hala, lehenbiziko bi egunetan jantzi tradizionalekin eskean ibiliko dira herriko auzo diferenteetan barna eta hirugarrenean, berriz, Dantxarineko bidea hartuko dute mozorro eta musika artean. Herriko etxaldetan barna ibiltzen diren egun horien bueltan zer nabarmendu badagoela ziurtatu du Arozarenak: «Etxez etxe eskean gabiltzanean giroa aski herrikoia izaten da, denak elkarrekin ibiltzen gara akordeioaren laguntzaz».

Bide beretik, etxeko atea irekitzen dizkieten herritar horietaz oroitzeko eskerturik agertu da: «Etxea irekitzen digun jendeak duen eskuzabaltasuna eta pazientzia eskertzekoak dira, urte guzian ez dugu elkar ikusten eta aski polita izaten da etxekoekin solas eta irri artean egotea». Bidenabar, bere kasuan «etxekoekin solastea eta zirikan ibiltzea ikaragarri gustatzen zait».

Lehenbiziko bi egunetan herria goitik beheiti ibili ondok, urteroko jauntzi tradizionalak berriz ere armairuan sartuko dituzte eta espreski aurtengo prestatutako mozorroei paso emanen diete Dantxarineko



DANTXARINEA

www.josenea.es | +34 948 599 236



**KALITATEKO MANTENTZE-LANAK
PREZIORIK ONENEAN**









**ZIGARRO
PURUEN CAVA**



DANTXARINEA (Urdazubi)
T. 948 599 018
arrechea.estanco@gmail.com

ORAIN erran.^{eus}
KLIK BAKARREAN
 Zer eskaintzen du Erran aplikazioak?

ALBISTEAK
 0km GIDA
 AGENDA
 KIDEN TXOKOA

DESKARGATU

Google Play App Store



UTZITAKOA

Montxo
 JATETXEA • ERRETEGIA

*Tradizioa, historia
 eta gastronomia*

asadormontxo.com

Axular karrika, 12
 31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
 +34 848 85 00 21
 info@asadormontxo.com

bidea hartuta. Eta Urdazubin bakoitzak bere mozorro propioa aukeratzen duen arren, denak abiapuntu bere-tik partitzen direla azaldu du Arozarenak. Elkarrekin eta aldi berean independenteki egiten dutela mozorroaren aukeraketa, alegia: «Normalean gazteok bilkura bat izaten dugu ihauteen inguruan, hor mozorro gaiarendako proposamenak mahai gaineratzen ditugu eta horien artean bozkaketa egiten dugu». Hala eta guztiz ere, «gai hori kontuan hartzea ez da derrigorrezkoa, bakoitzak nahi duenaz mozorratu daiteke», gehitu du urdazubiarrek.

Jakina da ihauteiak disfrutatu ahal izateko horiek aitzinetik antolatu ere egin behar izaten direla. Arozarenak esplikatu duenez, Urdazubiren kasuan, «urtero 5 pertsonaz osaturiko

gazte antolakuntza talde bat dago». Eta nahiz eta «horiek izaten diren antolatzeko ardura handiena hartzen dutenak», gainerako herritarrak –aurten bera barne- «laguntzeko prest» ere agertu ohi direla berretsi du.

Etorkizunera begira

Azkenik, aurtengoei begira, «ihauteak errespetuz tratatzea eta herri giroa mantentzea» gustatuko litzaiokeela esplikatu du Arozarenak eta etorkizun urrunago batera begira, «egun-go ihaute giro hau gazteagoetan ez galtzea» espero duela gaineratu du. Halaber, hainbertze miresten duen herri giroa mantentzearen urdazubiarrei zuzendu da, «herriak bizi gehiago izan dezan, herritarrei herrian parte hartzea eta inizatiba gehiago» izatea eskaturik.



UTZITAKOA

GOIZUETAKO INAUTEAK



FELIX LOIARTE

Otsailak 14, larunbata,

17:00etan Euskal Herriko Sokatira Jardunaldia.

Otsailak 15, igandea

17:00etan gaztetxoek zahagi dantza.
19:00etan DJ Gorka. 21:30ean mo-
zorroen afaria.

Otsailak 16, astelehena

07:00etan kafea tantarekin. 08:00etan
mozorroen irteera baserrietara.
09:30ean plazaren apainketa. Plaza
apaintzeko gaia lanbideak izanen
da. 11:00etan kalejira herrian.
13:00etan umeen bazkaria elkartean.
Ondoren haurrentzako filma.

14:30ean helduen bazkaria elkartean.

17:00etan txokolate beroa. 17:30ean
DJ Gorka. 20:00ak aldean mozorroen
etorrera Iruñeko Dultzaineroekin.
22:00etan mozorroen afaria.

Otsailak 17, asteartea

09:00etan mozorroen gosaria.
10:00etan mozorroen irteera herrian.
14:00etan mozorroen bazkaria.
17:00etan Zahagi Dantza Plazatik
hasita. 22:00etan mozorroen afaria.

Otsailak 21, larunbata

12:30ean mozorroen poteoa Igandea
txarangarekin. 14:30ean mozorroen
bazkaria. 17:30ean Igandea txaranga.



FELIX LOIARTE



FELIX LOIARTE

IGELTSERITZA - ERAIKUNTZAK
Javier Zabala
Kale Nagusia, 66
GOIZUETA
construcciones.javierzabala@gmail.com
T. 948 51 42 28
M. 679 47 98 93

Ongi pasa inauteak!

Oxeguarda
ostatua
Ongi pasa inauteriak!
T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

ZUBIMUXU aterpea
albergue de Goizueta
www.zubimuxu.com • Herriko plazan • 663 85 85 02
Sukalde erabiltzarria • 30 plaza • 2. eta 3. lagunekoa goiak • sileta

Ongi pasa inauteak!

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

MUTU
taberna
Ongi pasa karnabalak!
948 514 327
Fermín Antonio Apeztegui, 7
Goizueta

MAI
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
ONGI PASA INAUTERIAKI
bai
K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242